

«Pentsioak, soldatak eta fiskalitatea dira aberastasuna modu bidezkoan banatzeko tresnak»

Gaur hasita, aurten ere, astelehenero kontzentrazioak egingo dituzte berriro pentsiodunek, 12:00etan Plazan.

HERNANI PENSIODUNAK

Astelehenero biltzeari ekingo diote gaur berriro, pentsiodunek. Plazan 12:00etan jarri dute hitzordua, beste behin. Horrekin batera, «urtarrilaren 30erako Euskal Herriko gziarte-mugimendu eta sindikatu gehienek deitutako greba orokorra babestea erabaki» dutela jakinarazi dute.

«Oraindik ez ditugu lortu gutxieneko helburuak»

Astelehenero «13.000 pentsiodunek ehun bat herritako plazak betetzen» badituzte ere, bai Araban, Bizkaian, Gipuzkoan edota Nafarroan, «gutxieneko helburuak oraindik ez» dituztela lortu adierazi dute. «2018ko ekainetik aurrera zerbait egin zezaketenean, Estatuko gobernuak, ez du egin, ez da egiten ari, eta ez dugu nahiko bermerik hurrengo hilabeteetan gobernu berriarekin egingo dutela ziurtatzeko; hauteskunde-prozesuetako promesak haizeak eraman ditzake, eta ez dugu beste bi urteren zain egon nahi».



Gaur hasita, astelehenero biltzen hasiko dira berriro pentsiodunak, U30erako greba deialdiarekin bat egiteko.

Diote «esperoan egoteak pobretu» egiten dituela, eta «pentsiodunek gero eta baliabide gutxiago eta behar gero eta haundiagoak» dituztela. Era berean, «aldarrikapenak presazkoak eta bidezkoak» direla azpimarratu dute, eta zein diren gogoraziti dute: «2011 eta 2013ko pentsioerreformen alderdi erregresiboak indargabetzea; pentsioen balio-haunditze automatikoa, bizitzaren kostuaren igoeraren arabera gutxienez; pentsioen sistema publikoa eta haren finantzaketa bermatzea, beharrezkoa bada, Estatuaren aurrekontuekin, eta gizarte-kotizazioak nabarmen hobetzea, enplegu duina bermatuz, 2010 eta 2012ko lan-erreformak indargabetuz eta 1.200 euroko Lanbide arteko Gutxieneko Soldata

ezarritik; 1.080 euroko gutxieneko pentsioa, Europako Gutun Sozialaren eskakizunetara hurbiltzeko; lansari eta pentsioen arteko genero-aldea ezabatzea, alarguntza-pentsioaren oinarri arautzailearen %100erainoko igoera barne; 40 urtez kotizatutako erretiro aurretuen koefiziente murriztaileak indargabetzea, Kongresuan onartutako PNLren irizpideen arabera; eta adinekoentzako eta pentsiodunentzako bizi-baldintza duinak bermatzea, mendekotasunaren arretarako zerbitzu unibertsalen sare publikoa barne hartzen dutenak».

«Pentsio publikoak, ongizate estatuaren oinarri»

Bestalde, gogoraziti dute «pentsioak, soldatak eta fiskalitatea

direla aberastasuna modu bidezkoan banatzeko tresnarik egokienak», eta hain zuzen, «pentsio publikoak izan direla eta direla ongizate-estatuaren oinarrietako bat, eta hala izaten jarraitu behar» dutela.

Horregatik, «horiek defendatzea guztioi dagokigula» azpimarratu dute; «ez da pentsiodunen kontua soilik». Beraz, urtarrilaren 30ean herri eta hirietako kaleak betetzeko dei egin dute, mobilizazioaren eta egun horretarako deitutako greba orokorraren alde. «Helburuak lortzeko bermea mobilizazioa areagotzea da».

Era berean, atxikipenak eta iradokizunak jasotzeko, posta elektronikoa jarri dute mar-txan: 2020mpeh@gmail.com. K

Narkotrafikoaz gaur, Zelaieta

HERNANI LITERATURA

Liburu berria aurkeztuko du gaur Ahoztar Zelaietak, Biterin, 19:00etan: *El narco-oasis vasco. Capos del narcotráfico y mafias policiales con impunidad política*. Euskal Herriko narkotrafikoarekin politikari eta bankuek daukaten harremanaz hitz egingo du, bereziki, ertzain batek eta hanpako kide batek emandako informazioan oinarrituta.

Koordinatzailea gaur, lokalean

ASTIGARRAGA KZ GUNEA

Arratsaldeko 16:00etatik 17:45etara, KZ Gunean egongo da bertako koordinatzailea, zalantzak argitzen laguntzeko. Bestela, emaila erabili daiteke: tutor.astigarraga@kzgunea.net.

Hitz egiteko tartea gaur, eta tailerra bihar

ASTIGARRAGA GURASOLAGUN

Gaur hartu ahal izango da parte, 16:30etatik 18:30etara ikastolan, haurrak eta gurasoak kafe baten bueltan bildu eta euskeraz aritu daitezen helburu daukan Gurasolagun egitasmoan. Bihar, bestalde, eskumuturrekoak eta lepokoak egiteko tailerra emango da.

Bilera, eski ikastaroari buruz

HERNANI MENDIRIZ MENDI

Hilaren 18 eta 19ko astebururako iraupen eskia eta eski alpinoa egiteko ikastaroa antolatzen ari da Mendiriz Mendi. Interesa dutenekin gaur egingo du informazioa emateko bilera, 20:00etan, Iturregi plazako bulegoan. Bertan azalduko dira ikastaroen prezioa eta ordu-tegia zein diren, eta bestelako hainbat xehetasun.

Ez-ohiko batzarra Goiz Eguzkin, zuzendaritzarako

Jubilatuen etxea «egoera estuan» dago, zuzendaritzak dimisioa aurkeztu baitu, 14 urteren ondoren «nekatuta» dagoelako, eta erreleborik ez dagoelako. Ez-ohiko batzarra deitu da gaur 17:30etan.

HERNANI GOIZ EGUZKI

Kinka larrian dago Goiz Eguzki jubilatuen etxearen etorkizuna. Izan ere, egungo zuzendaritzak 14 urte daramazki lanean, eta «nekatuta» dago, Paco Goya lehendakariak Kronikari azaldu dionez. Horregatik, pasa

den urriaren 21eko batzordean zuzendaritza osoak dimisioa aurkezte erabaki zuen. «Ideia berriak dituen eta elkarteari bultzada sortzailea emango dion kide gazteak sartzea beharrezkoa da».

Erreleborik ez dago, ordea, eta beraz, «Goiz Eguzkiren etor-

kizuna eta existentzia bera dau-de jokoan».

Ez-ohiko batzarra gaur, bazkide guztiek

Gauzak horrela, egungo zuzendaritzak lanean jarraituko du otsaileko Bazkideen Batzarrera arte, baina ez gehiago.

Horregatik, egoera bideratzeko, ez-ohiko batzarrera deitu dira gaur bazkide guztiak, 17:30etan Goiz Eguzkin. Bertan izango dira, baita ere, Xabier Lertxundi, alkatea; Joselon Etxart, Zerbitzu Sozialerako kudeatzailea; eta Goiz Eguzkiko egungo zuzendaritza. K

FUNERARIA ORBEGOZO BEILATOKIA

Asegururik ba al duzu?

Deitu Orbegozora

24 orduko tlfnoa.
943 33 10 20

www.funerariaorbegozo.com

Zentrala: Latsunbe 7, Hernani

HERNANI ANDOAIN ASTIGARRAGA URNIETA GOIZUETA

* Zerbitzu partikularrak eta aseguru etxekin
* Erreleborrik
* Beilatokiak
* Eskelak, korroak...

ORBEGOZOZ
FUNERARIO - BEILATOKIA

ISABEL

Janari denda

COVIRAN

Tomas Alba 11,
Astigarraga
943 55 23 67

Catalana Occidente

Aseguruak

BAUTISTA BIURRARENA ETXEGOIEN

Atzieta 30 - Hernani
943 33 24 40

gse

Asesoreak

Aholkularitza eta tramitazio zerbitzua

Gudarien plaza, 13
Telfnoa: 943 55 02 54
Faxa: 943 33 58 01
gse@gseasesores.net

GAUR Lainotuago egongo da, baina oraindik eguzkia izango da nagusi. Hego-haizea ibiliko da, goizean ahul, baina lainoen ondorioz tenperatura ez da epelduko. **Min.5° / Max.13°**

BIHAR Gehiago lainotuko du, baina ez du euririk egingo. Hego-haizea zakartu egingo da, eta bolada gogorrek joko du tarteka. Ondorioz, epeldu egingo du. **Min.7° / Max.17°**

DOBERA EUSKARA ELKARTEA
LAGUNTZAILEAK
Hernaniko Udala
Astigarragako Udala
Euzko Udala
Gozietako Udala
Aranoko Udala

TAXIAK: 943 550093 (Hernani) 622 222 343 (Astigarraga) 948 514037-948 514019 (Goizueta) **UDALTAINGOA:** 943 248900 (Hernani) 943 335230-699 487 587 (Astigarraga) **DYA:** 943 464622
AUTOBUSAK: Garayar: 943 556658 Areizaga: 943 452708 Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037 **ANBULATORIOA:** 943 006666 - 900 203050 (Hernani) 943 335644 (Astigarraga) 948 510800 (Goizueta) **Egunez:** Castilla Urbietan, 7 (Hernani) **943 552941** Gaez: **Urrutia** Etxeberri, 1 (Hernani) **943 557738** Goizueta: Nagusia 64 **948 514353**

DOBERA BAZKIDEAK / KRONIKALARIAK



Cienciasek ondo eutsi zion atzo, Hernaniren erasoari.

Saiatu arren, ezin arerioa azpiratu

Indarrez hasi zuten atzo partidua Landaren, Hernanik eta Cienciasek, eta azken hau nagusitu zen azkenean, 23 eta 41.

HERNANI ERRUGBIA

Tentsio handiko partidua bizi izan zen atzo Landaren. Horren erakusgarri, partidua hasi eta 6garren minutura Cienciasen aldekoa izan zen zigor kolpea, eta 16garrenera Hernaniren aldekoa izan zen bigarrena.

Sailkapenean azken bi postuetan daude bi taldeak, eta Hernanirentzat garrantzitsua zen bigarren itzulia garaipenarekin hastea, baina Cienciasek ondo eutsi zituen etxeko erasoak,

eta 6 entsegu eginda, 23 eta 41 irabazi zuen partidua, etxekoak punturik gabe utzita.

Atzetik

Partidua bizia izango zela argi geratu zen hasieratik, eta ondo hasi zen Hernani. Baina Cienciasek lortu zituen partiduko aurreneko entsegu eta transformazioa, 21garren minutuan, eta beste bat ere egin zuen, 27garrenean. Hernanik ere lortu zuen berea 34garrenean, baina Cienciasek beste bat lortu zuen,

transformazio eta guzti, atsendaldiaren aurretik: 8-22.

Bueltakoan bizi ibili zen Hernani, eta bigarren entsegu lortu zuen 4 minutura. Ciencias, ordea, ez zegoen lo, eta beste bi entsegu eta transformazio egin zituen 52 eta 59garren minutuetan, markagailuan tartea haundituz, 13-36.

Gogor saiatu zen hala ere, Hernani, eta lan bikaina eginda, beste bi entsegu lortu zituen: 23-36. Cienciasek, ordea, erakutsi egin nahi izan zuen ez zela azpiratua izango, eta beste entsegu batekin bukatu zuen partidua, 23 eta 41.

Horrela, 11 punturekin gainerat geratu da Ciencias, eta 7rekin, azken da Hernani sailkapenean. **K**

JASOTA BEZALA

Gutuna argitaratzeko ezinbestekoak dira: izena eta bi abizen, NAN edo EHNA erakustea eta telefonoa. | Gehienez 1.800 karaktere onartuko dira. | Kronikak beste hizkuntzetan jasotako kartak euskeratzen ditu. | Kronikak ez ditu bere gain hartzen sail honetan esaten direnak, edo itzultzeko garaian izan daitezkeen gaizki ulertuak. | Irainak, debaldeko salaketak eta difamazioak ez dira onartuko.

Sexismoa jostailuetan

Gabonak pasa diren arren, oraindik ere jostailu dende bantatu zituzten aldizkariak etxean ditugu. Aldizkari hauek oso kezkatuta nauka, orain arte mugimendu feministak lortzen ari diren aurrerapenak abolitzen ari baitira.

Alde batetik, gizarteak inposatutako estereotipo matxistak azaltzen dira jostailu katalogoetan. Adibidez, sukalde edo etxearen zainkari lotutakoak beti neskei zuzenduta daude. Hau dela eta, hasieratik umeen hezkuntza berdintasunaren bidetik zuzendu beharrean, atzera egin ari gara, estereotipo hauek gure artean desberdintasunak soilik handitzen baitituzte. Desberdintasun hauek emakumeen eta gizonezkoen arteko aldea areagotzen dute, betiere emakumea gutxietsiz.

Beste aldetik, umeek genero-rolak barneratu egiten dituzte

aldizkari hauek ikusterakoan. Hau dela eta, etorkizunean, gure seme-alabek txikitzen ikasi duten hori haien jokabidean islatuko denez, gure gizartearen ideologia matxistek garrantzia handia izango dute. Orobat, arazoa ez da jostailuak sexistak direla, benetan aldizkarietan produktu horiek saltzeko era sexista baizik. Era berean, behin eta berriro errepikatzen diren estereotipo horiekin identifikatuta sentitzen ez diren umeak frustratu egiten dira, gizarteak inposatutako araukin bat ez datozelako. Beraz, propaganda sexistek, neska eta mutilen arteko desberdintasunak handitu ez ezik, estereotipo hauekin identifikatuta sentitzen ez diren umeak diskriminatu egiten dituzte, baita ere.

Hori gutxi balitz, jostailu hauek saltzerako garaian transmititzen diren balioak ez dira batere

etikoak. Aldizkari hauek bi multzotan sailkatzen dituzte umeak sexuaren arabera, eta multzo bakoitzean balio jakin batzuk sustatzen dira. Adibidez, mutilei zuzendutako propaganda beti bortitza eta sentimenduekin loturarik ez duena izaten da, alegia, mutilak beti sentimentalki gogorrak eta ez sentikorak izan behar direla transmititzen da. Eta horrek ondorio zuzenak ditu eraikitzen ari garen gizartearen.

Hau horrela izanda, gure gizartearen dugun arazo larriren batekin bukatu nahi badugu, gabonetan eta urtean zehar iristen zaigun propaganda sexistak alde batera utzi behar dugu. Orobat, jakinarazi behar diegu jostailu dendei gure desadostasuna honen inguruan lehenbailehen arazo honekin buka dezagun.

Iker Arratibel Zotes

«EH Bilduk txotx irekiera herrikoia kendu du»

EAJk salatu du Bilduk txotx irekiera «erakunde eta tabernetara itzuli eta herritarrak alde batera utzi» izana.

ASTIGARRAGA EAJ-PNV

Asteazkenean irekiko da 2020ko txotx denboraldia, Alorrenea sagardotegian, baina aurtan ez da Murgia Jauregiko festa egingo, eta EAJk kexa azaldu du, «EH Bilduk txotx irekiera herrikoia kendu» duelako.

EAJk sustatutako festa, «arrakastatsua»

Jeltzaleek gogorarazi dute Murgiako Jauregiko festa azken hiru urteetan egin dela, EAJ-PNVk pasa den legegintzaldian sustatuta, eta «astigartarren artean arrakasta handia» izan zuela. «Baina EH Bilduk erabaki du tradizioarekin ez jarraitzea».

Ekitaldi honekin EAJren asmoa izan zen «astigartar guztiak Txotx Berri Eguneko partaide egitea». Horretarako, Murgiako Jauregiko lorategia erabili zen, eta

sagardoa eta pintxoak eskaintzeaz gain, «alderdirik tradizionalenean, hedapena izan zuen bakailao tortilak egiteko familiei zuzendutako tailerrak, eta baita ere, txokoladak edota txikienezako magia ikuskizunak, azaldu dute.

«Herritarrak ezinbestekoak dira gure tradizioak transmititzeko»

Honekin, EAJk gogorarazi du lehengo «txotx irekiera erakunde mailan bakarrik egiten» zela, eta horri eman nahi izan ziola buelta. «EAJrentzat, festa honen helburua izan da sagardoaren kultura aberastu eta dibertsifikatzea, herritarrei gerturatzea eta baita ere, herriko bizilagun berriei ezagutzera ematea».

Hori guztia medio, EAJk azaldu du «desengainatuta» dagoela. «Beti izan zen arrakastatsua. Herritarrak ezinbestekoak dira gure tradizioak transmititzeko, eta festa honek sagardoaren kultura herritarrari gerturatzen zion. EH Bilduk, ordea, txotx irekiera erakundeetara eta tabernetara itzultzea erabaki du, eta herritarrak alde batera uztea». **K**

Eskelak

Eskelak ilunabarreko 19:30ak arte jasoko dira. Izen abizenak, eskela jartzen duenak eskatu bezala errespetatuko dira eta funeraria bidez jasotzen den kasuetan, jaso bezala.

† MARIA LUISA MENDIOLAGARAY BILBAO
ANDREA
(Juan Aurtenekezaren alarguna)
Herenehun hil zen, 99 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkazioa hartuta
- Goian bego -
Seme-alabak: Juan Mari (†) eta Maria Angeles, Edurne eta Javier, Jose Ignacio, Maribi; bilobak: Josune eta David, Jon eta Begoña, Gorka eta Naiara, Mikel eta Esther; birlobak: Garazi, Aner, Ane eta Julen; anaia, ezkon anai-arrebak, ilobak, lehengusuak eta gainerako ahaideak.
Haren animaren alde otoitz bat eskatzen dizuete eta arren etor zaitzela **GAUR, ASTELEHENA**, arratsaldeko **ZAZPIETAN, SAN JOAN BATAIATZAILEA** parroki elizan egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.
Hernanin, 2020ko urtarrilaren 13an
Helbidea: Galarreta auzoa
OHARRA: Gorputza **HERNANIKO ORBEGOZO EHORZKETA TANATORIOAN** egongo da eguerdiko 12:00ak arte.

FIDELA MURILLO GUIASADO
Besarkada handi bat.
HERNANIKO TABERNARIK
Hernanin, 2020ko urtarrilaren 13an

IRAGARKI MERKEAK

LOGIKALINE enpresak **TELEOPERADORA LANPOSTU** bat bete behar du. Lana Hernanin egiteko da. Kontratua: 6 hilabete, hasteko. Gaztelera eta katalana eskatzen dira. Lanaldi osoa.

Bidal c.v. rrrh@logikaline.com edo deitu **943 31 86 06**.

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, osteopatia, kinesologia, reiki, homeopatia, akupuntura,... Deitu: **943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)**